

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

5502

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 25ekoa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz argitaratuko den Enplegu Publikoaren Atarian 2024ko azaroaren 25eko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioiko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda eta esleitzekoak diren lanpostuak onartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioiko zerbitzu laguntzaileen 2022rako enplegu publikoaren eskaintza onartzen duen Erabakiarekin (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioiko zerbitzu laguntzaileetako enplegua finkatzeko ezohiko prozesuetarako oinarri orokorren 6.2 apartatuarekin (oinarri horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez onartu ziren) bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Iragartzea 2024ko abenduaren 2an argitaratuko dela Enplegu Publikoaren Atarian, https://www.euskadi.eus/enplegu_publicoa/ helbide elektronikoan, Giza Baliabideen zuzendariaren 2024ko azaroaren 25eko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioiko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda eta esleitzekoak diren lanpostuak onartzen dituen.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a.

(Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak eskuordetuta. 2024ko urtarrilaren 23ko Agindua (2024-02-02ko EHAA), zenbait eskumen gauzatzea Segurtasun Saileko Giza Baliabideen zuzendariari eskuordetzen diona).

Giza Baliabideen zuzendaria,
MIRIAM ANITUA ARANZABAL.